

**Azterketa: "Loturak, formulazio ez-organikoa eta formulazio organikoa" (Batx 1)**

**Izena:**

**Gela:**

**1. Ondoko molekulak aztertu:  $\text{SO}_2$ ,  $\text{SO}_3$ ,  $\text{BCl}_3$ ,  $\text{CCl}_4$ ,  $\text{NH}_3$ ,  $\text{H}_2\text{O}$ ,  $\text{CO}_2$  ondoko ezaugarriak emanez:**

- **molekularen Lewis-en egitura**

Loturak eta parekatutako elektroiak adierazi. Hemen ez da beharrezkoa loturen arteko angeluak adieraztea.

- **lotura bakoitzaren polaritatea**

Lotura bakoitzaren polaritatea gezi baten bidez adierazi, zein alde den positiboagoa eta zein negatiboagoa antzemateko.

- **molekularen geometria (forma eta loturen arteko angeluak)**

Irudia egin, forma eta loturen arteko angeluak islatuz.

- **molekularen polaritatea**

Polarra ala apolarra den; eta polarra den kasuetan zein alde den positiboa eta zein negatiboa esan

- **molekulen arteko indar intermolekularrak**

Zein motatakoak diren esan eta irudien bidez adierazi baita.

ELEKTRONEGATIBITATEAK: H=2,1; O=3,5; N=3; B=2; F=4; C=2,5; S=2,5; Cl=3  
(PUNTUAZIOA: 2 puntu)

**2.  $\text{C}_4\text{H}_6\text{O}$  fomula emanik:**

- **adierazi zenbat insaturazio dituen molekula horrek**
- **adierazi hiru isomero, emanez izenak eta formula erdigaratua**

(PUNTUAZIOA: 1,5 puntu)

**3. Honako substantziak emanik:  $\text{NH}_3$ ,  $\text{Na}_2\text{SO}_4$ ,  $\text{Br}_2$ , Fe eta  $\text{SiO}_2$  (kuartzo) adierazi:**

- **substantzia ioniko, kobalente molekularra, kobalente atomikoa edo metalikoak diren**
- **beraien fusio puntuak altuak ala baxuak diren adierazi**
- **posible denean, ezaugarri mekanikoak eman (hauskorra, gogorra, xaflakorra den)**
- **bere ezaugarri elektrikoak eman (eroalea edo ez-eroalea)**
- **uretan disolbatuko diren ala ez**

(PUNTUAZIOA 1,5 PUNTU)



### 3. Ondoko hutsuneak bete.

Gaizki idatzitako bakoitzagatik (formula, egitura edo izena), 0,25 puntu kenduko dira. Akatsa ez bada larria (adibidez, parekatutako elektroiak marraztu gabe), 0,1 puntu kenduko da.

PUNTUAZIOA: 5 puntu

Izena	Formula	Egitura
Azido perkloriko		
Kaltzio dihidrogeno ortofosfato		
	$Mg(OH)_2$	
Karbono monoxido		
Azido sulfhidriko		
Azido nitriko		
Azido sulfuriko		
Sodio ortosilikato		
	$KMnO_4$	
	$KNO_2$	

<b>Amoniako</b>		
<b>Ura</b>		
<b>Sodio hidrogeno karbonato</b>		
	<b>CaSO<sub>4</sub></b>	
<b>Sodio sulfito</b>		
	<b>CuS</b>	
<b>Burdin (III) hidroxido</b>		
	<b>Mg (ClO<sub>3</sub>)<sub>2</sub></b>	
	<b>CaO</b>	
	<b>AlCl<sub>3</sub></b>	

<b>Azido azetiko</b>	
	<b>CH<sub>3</sub>-CO-CH<sub>2</sub>-CH<sub>2</sub>-CH<sub>3</sub></b>
<b>3,3-dimetil-1-butanol</b>	
	
<b>Metanal</b>	
	
<b>Bentzeno</b>	
	<b>HC≡C—CH<sub>3</sub></b>
<b>1,3-butadieno</b>	
	<b>CH<sub>2</sub>OH-CHOH-CH<sub>3</sub></b>